



Arartekoaren 2019R-2822-17 Ebazpena, 2019ko apirilaren 11koa. Horren bidez Donostiako Udalari gomendatzen dio Alde Zaharrean terrazak instalatzean irisgarritasunaren arloan eta bestelako alderdietan legezkotasuna bete dezan.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan "Parte Zaharrean Bizi Auzo Elkartek" aurkeztutako kexa jaso da, Donostiako Udalak ez duelako jarduketarik egin inguru horretako ostalaritza-establezimendu askok terrazekin espazio publikoa okupatzeko udal ordenantza edota baimenaren baldintzak ez dituztela bete kontuan hartuta.

Elkarte horrek adierazi du aspalditik salatzen ari direla udal araudia ez dutela betetzen, zehazki, Donostiako ostalaritzarako jabari eta erabilera publikoko lurzoruen okupazioa arautzen duen ordenantza. Ildo horri eutsiz, elkartek kexa ugari izapidetu ditu udalean eta edukia oso anitza izan da. Laburpen modura, hurrengo alderdi orokorrak azpimarra daitezke:

- Baimenik gabeko terrazak.
- Baimena emateko baldintzak betetzen dituzten terrazak, honako arrazoi hauengatik, batez ere:
 - Altzariak baimendutako gunetik kanpo jartzeagatik.
 - Baimendutakoa baino altzari gehiago jartzeagatik.
 - Arbelak eta baimendu gabeko beste elementu osagarri batzuk jartzeagatik.
 - Terraza jartzeko ordutegia ez betetzea, besteak beste.
- Irisgarritasunari buruzko araudia ez betetzea.
- Ordenantzarekin bat ez datozen baimenak.
- Zehazpen espedienteak ez izapidetzea.

Kexa aurkezten duen elkartek adierazi duenez, salaketa horiei ez zaie behar bezala erantzun, eta gehienak erantzun ez direnez edo erantzun berantiarra dutenez, ez-betetze mailak ez du etenik auzotarren irisgarritasun, osasun eta atsedenerako eragin oso kaltegarria izanik.

2. Kexan deskribatutako gaiak balioztatu ostean, Arartekoak Donostiako Udalari informazioa eskatu zion eta erreklamazioaren gune aztergaien ostalaritza-establezimenduek espazio publikoa beren probetxuan erabiltzeko testuinguru orokorraren inguruan lehenengo hausnarketa helarazi ere bai.

Elkartek gutxienez bi urtez (2016-2017) ostalaritza-establezimendu askoz salatutako jarduera ugariri buruz kexaren xedea balioztatzeko, Arartekoak honako dokumentazioa eskatu zuen:





- Elkarre kexagileak behin baino gehiagotan salatu dituen sei establezimenduren baimen-espedienteak nahiz beste jarduketa batzuen espedienteak (zehapenekoak barne), ausaz hautatu direnak:
 - 2016tik orain arte inguru horretan abiarazitako zehapen espedienteen kopurua.
 - Epe berean jadanik ebatzitako zehapen espedienteak, arau-hauste mota zehaztuz (arina, larria eta oso larria eta urratutako artikulua), bai eta ezarritako zigorra ere, baimena eteteko kasuak barne.
 - Gaur egun oraindik ebazteke dauden espedienteak.
 - Ordenantza betetzeko gune horretan egindako beste zenbait jarduketa (egindako berriazko jarduketa zehatzak, data, arrazoia eta emaitza).
 - Ekitaldiak dauden egunetan Mari kaleko eta Konstituzio plazako terrazetarako baimenetan Irisgarritasunaren Legea eta udal ordenantza betetzen den jakiteko berriazko txosten teknikoak.
 - Esterlines kalean, bertan dauden terrazak ikusita, larrialdietarako lekua gordetzen den jakiteko txosten teknikoak.
 - Irisgarritasunaren araudia betetzen dela erabakitzeko aplikatzen diren irizpide orokorreki buruzko txosten teknikoak (oinezkoentzako ibilbideak bermatuta dauden, errespetatu beharreko distantzia...).
3. Donostiako Udalak erantzuteko dokumentazio desberdina bidali zuen eta hurrengo atalean aztertuko da.

Gogoetak

1. Erakunde honek, gomendio batean baino gehiagotan aipatu duen moduan (guztiengatik, Arartekoaren 2015R-205-15 Ebazpena, 2015eko urriaren 28koa; horren bidez, Bilboko Udalari terrazak jartzeko orduan espazio publikoaren ordenantza bete dezala gomendatzen zaio), udal administrazioek espazio publikoaren irabazizko aprobetxamendu-mota hori arautu eta baimentzeko orduan, jakitun izan behar dute, batetik, herritar guztientzat erabilera orokor komuna mugatzen dela eta, bestetik, baimenek inguruko bizilagunengan eragin garrantzitsuak sortzen dituztela. Horiek areagotzen dira baimendutako instalazioak kale eta espazio publiko zehatzetan jarraituta kokatzen direnean, Donostiako Alde Zaharrean gertatzen den bezala.

Ondorioz, agintari arduradunen jardueran ordenantzaren bitartez halako baimen-motak arautzeko orduan zona zehatzen bizi diren bizilagunen errealitatea kontuan hartu behar da eta horrekiko sentikortasuna ageri ere





bai. Horrez gain, ezinbestekoa da espazio publikoa halakoekin hartzean baldintzak betearazteko orduan, eskakizun eta kontrolean eraginkorragoa eta efizienteagoa izatea, are gehiago, baimen horiek egoiliarrei eragozpenak eta kalteak sortzen dizkietela jakinda.

Hasierako hausnarketa horretatik abiatuta, hurrengo ataletan, auzo-elkartek kexan planteatzen dituen gaiak aztertuko dira.

2. Udalak ostalaritzarako jabari eta erabilera publikoko lurzoruen okupazioak arautzeko udal ordenantza (2014ko apirilaren 8ko 67. GAO), aurrerantzean, ordenantza, du indarrean eta zati batean 2015eko uztailaren 30eko erabakiz (2015eko abuztuaren 7ko 149. GAO) aldatu zen.

Araudi horretatik zioen azalpena azpimarratu behar da, ordenantzak oinarritzat hartzen dituen balioak eta irizpideak zehazten baitira. Aurrekoaren harira, honakoak aipatzen ditu:

- Erabilera komun orokorrak lehenetasuna du eta arreta berezia jarriko zaio oinezkoen iragateari. Hala, erabilera publikora bideratutako espazioetan herritarren irisgarritasuna erosotasunez, segurtasunez eta arintasunez ez murriztea bermatuko da.
- Zuhaitzak, parterreak, hiri-paisaiako landareak eta hiri-altzarien elementuak zainduko dira.
- Zerbitzu publikoen funtzionamendua eta, bereziki, larrialdiena bermatuko da.
- Pertsonen ingurumen osasuntsua izateko eskubidea babestuko da.

Balio horiek guztiak asmoen adierazpen argia dira eta kontuan hartuko dira ordenantzaren artikuluetan eta horien aplikazioan, beraz, eskaera zehatzari aplikatzeko interpretazioa halabeharrez irizpide horien ikuspegitik aztertu behar da.

Aipatzen diren balioetatik, nahiz eta zehazki kexa honen xede ez izan, azpian dago honako arazoa: instalazio-mota horiek, besteak beste, giroko zaratarengatik eragozpenak sortzen dituztela, hortaz, ordenantzaren artikuluetan pertsonen babesari zer tratamendu ematen zaion aztertu behar da, ingurumen osasuntsuaz gozatzeko eskubidea dutela kontuan hartuta.

Ordenantzak bi neurri berezi aurrez ikusten ditu terrazak instalatzean zonan bizi diren pertsonengan sortzen diren ondoreak mugatzeko. Ildo horri eutsiz, alde batetik, ordenantzaren 8.9. artikulua aurrez ikusitakoaren arabera, kanpoalderantz ematen duten leihoak itxiak egongo dira 23:00etatik aurrera eta aurreikuspena berdina da, establezimenduek musika-ekipoak badituzte.

Beste alde batetik, orokorrean, Alde Zaharrean 5,20 metrotik beherako zabalera duten kaleetan terrazak kentzeko eta jarduera amaitzeko ordutegia



22:30era mugatzen da. Ostiral, larunbat eta jaiegunen bezperatan hori 24:00etara zabaltzen da.

Bi neurri horietatik kanpo, ukitutako pertsonen atsedenerako beren eskubidea babesteari begira onargarriak direnak baino balio handiagoekin asaldatuta dagoenean, jarduerak eskatzeko bitartekoak ez dira lantzen. Zarata eta bibrazioengatik kutsadura akustikoaren aurrean udal-jarduerari buruzko ordenantza (2000-10-17ko 198. GAO) aztertzen badugu, terrazei eta aulki nahiz mahaiei dagokienez, aipamena ia aurreko atalean azaldutakoaren berdina da. Araudi hau interesgarria da terrazak eta aulki nahiz mahaiak instalatzean eragozpenak sor ditzaketela onartzen den neurrian. Horri eutsiz, 25. artikulua honakoa dio:

“1. Jarduera nagusiak baimenduta daukan ordutegia edozein izanik ere, terrazen eta kanpoko mahaien erabilera Udal honetako Ondarearen Atalak baimentzen duen ordutegira mugatuko da, beti ere, eta bere kokapenaren ezaugarri partikularrak direla-eta, ordutegia murriztu ahal izango da, bizilagunentzat gogaikarria izan daitekeen zarata sortzen denean.”

Ulertzen dugu gai honi aurre egiteko neurri eraginkorrak hartzeak dakarren zailtasuna. Dena den, 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomia Erkidegoko kutsadura akustikoari buruzkoak, xedatutakoarekin bat, zarata mapen eta ekintza planen esparruan konponbideak arakatu beharko lirateke. Giroko zaratak jasaten duten pertsonen bizi kalitatean asko eragin dezake. Azterlan batzuen arabera, gizakiaren ahotsa ohiko ahaleginaren egoeratan 55 eta 60 dBA artean koka daiteke eta Munduko Osasun Erakundearen iritziz parametro horiek kalteak eragin ditzakete pertsonen osasunean, beraz, taldean aisialdi-egoeratan gizakiaren ahotsak lor dezakeen bolumenarekin arazoa larriagotzen da. Konstituzio Auzitegiaren 119/2001 Epaiak, maiatzaren 24koak, onartzen du honako moduan:

“En efecto, el ruido puede llegar a representar un factor psicopatológico destacado en el seno de nuestra sociedad y una fuente permanente de perturbación de la calidad de vida de los ciudadanos. Así lo acreditan, en particular, las directrices marcadas por la Organización Mundial de la Salud sobre el ruido ambiental, cuyo valor como referencia científica no es preciso resaltar. En ellas se ponen de manifiesto las consecuencias que la exposición prolongada a un nivel elevado de ruidos tienen sobre la salud de las personas”.

3. Arazoa Donostiako udalerriko Alde Zaharraren eremuan udal-ordenantza nola betetzen den aztertzean oinarrituko da. Xede horrez, zonako ostalaritza-establezimenduen terrazei buruzko baimenaren sei espediente izan ditugu, elkarteak ez-betetzeak dituztelako salatu dituztenen artean ausaz hautatu ostean.



Espedienteen laginketa udalak bidali du eta A, B, C, D, E eta F esango diegu. Biztanle-elkarte interesdunak azaldutako arazokiko udal-jarduera alderatu ahal izango da, honakoak hizpide ditugula kontuan hartuta: ordenantzarekiko terraza-baimenduen betetze-maila, araudiaren ez-betetzeak, salaketen aurrean zehapen-espedienteen izapideak, etab. Ebazpen honetan ez da egokitzat jo aztertutako ostalaritza-establezimenduen izenak aipatzea, kexa ez baitago berariaz bati zuzenduta. Nolanahi ere, elkarte kexagileak adierazitako jarduerak aztertuko dira.

4. Anlisisa egiteko ebazpen honen lehenengo aurrekarian aipatzen diren alderdi orokorren ordenari erreparatuko diogu.

4.1. Baimenik gabeko terrazak.

Aztertutako espedienteak ikusita, alderdi hori ezin daiteke baieztatu. Horietan, batik bat, baimeneko baldintzak ez direla betetzen antzematen da. Hala ere, batzuetan, itxuraz, baimena espazio publikoa egiaz okupatu ondoren eskatu da ("E" espedientea: 2017ko apirilaren 16ko kexa eta baimena 2017ko ekainaren 7koa da).

Nolanahi ere, espazio publikoa okupatzeko baimenak azkar ematen direla egiazta daiteke. Oro har, baimena eskatzen denetik ez dira hamabost egun baino gehiago igarotzen eta batzuetan baimena lortzeko ez da astebetean behar.

4.2. Baimena emateko baldintzak betetzen dituzten terrazak.

Aztertu diren sei espedienteetatik bostek ez du betetzen. Zehatz-mehatz esanda, A, B, C, E eta F espedienteetan hurrengoak hautamen dira: baimendutako espaziotik kanpo altzariak instalatzea, baimendutakoak baino altzari gehiago jartzea, terrazak muntatu eta desmuntatzeko ordutegia ez betetzea eta baimendu gabeko elementuak ipintzea.

Gai hau zehapen-espedienteak izapidetzeari buruzko atalean xehetasun handiagoaz aztertu arren, aurreratuko dugu hainbat zehapen-espedientetan ez-betetzeagatik salaketaren eta udal-jarduera hastearren artean denbora asko igarotzen dela (hainbatetan uda osoa). Hala, kaltetutakoak denbora horretan ez-betetzearen ondoreak jasaten ari dira, kautelazko neurririk hartu gabe (adibidez: "F" espedientea).

4.3. Irisgarritasunari buruzko araudia ez betetzea.

Nahiz eta aztertutako sei espedienteetan gai hau zehatz-mehatz ez den aztertzen, ukalezina da kale bakoitzean oinezkoentzako ibilbideetarako aurrez ikusten den espazioa baino gehiago baimenik gabe okupatzeak irisgarritasunean eragiten duela (adibidez: "A" espedientea) eta, gainera, egoera hori beste oztopo batzuek areagotzen dutela, instalazioarekin





berarekin zerikusirik ez izan arren. Ildo horri jarraiki, oinezkoentzako ibilbideak linealki ezin dira behar bezala erabili.

Elkarte kexagileak adierazten duen bezala, irisgarritasunari buruzko araudiak xedatutakoarekin bat oinezkoentzako ibilbideak errespetatu behar dira. Helburu horrekin, **2015eko urriaren 28ko Arartekoaren 2015R-205-15 Ebazpenari** eutsiko diogu. Hartan jada honakoa aipatzen genuen:

"Gai horren gaineko erregulazioak hiriguneko irisgarritasuna bermatu nahi die mugikortasun arazoren bat duten pertsona guztiei, baita komunikatzeko edo bestelako edozein mugaketa psikiko dutenei edo zentzumen urritasunen bat dutenei ere (Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/2007 Legearen 1. artikulua).

Aipatu legearen garapenean, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuaren bidez, hiriguneetako, espazio publikoetako, eraikuntzetako eta informazio zein komunikazio sistemetako irisgarritasunerako baldintzei buruzko arau teknikoak onartu dira. Hemen interesatzen zaigun xedeetarako, zera ezarri du hiriguneetako irisgarritasunaren gaineko baldintza teknikoari buruzko II. eranskineko 4.2.1.5. artikulua:

'Hiri-altzariak oinezkoentzako ibilbidearen luzetarako noranzkoan lerrokatuta antolatuko dira. Espaloiaren kasuan, kanpoko ertzean jarriko dira, inoiz ez fatxadaren ondoan eta, kasu guztietan, oinezkoentzako ibilbidearen zabalera librekoa 2,00 m-koa izango da gutxienez. Hektarea bakoitzeko 12 edo etxebizitza gutxiagoko dentsitatea duten urbanizazioetako espaloietan 1,50 m-koa izango da gutxienez.'

Bestalde, zera ezarri du II. eranskineko 4.2.1.7. idatz-zatiak:

'Erabilera publikoko espazio libreetan edo oinezkoentzako ibilbideen ondoan instalatutako jarduera iraunkorrek edo aldi baterakoek (hala nola kioskoek, salmenta edo erakusketarako postuek, ostalaritzako terrazek edo antzekoek) ez dute inoiz oinezkoentzako ibilbidea oztopatuko eta irisgarritasuna kontuan hartuta diseinatu beharko dira.'

Irisgarritasunari buruzko erregulazioa osatzeko, kontuan hartu behar da hirietako espazio publikoetara sartzeko eta horiek erabiltzeko irisgarritasun eta bereizkeriarik gabeko oinarritzko baldintza teknikoaren agiri teknikoa garatu duen otsailaren 1eko VIVI/561/2010 Agindua (BOEko 61. zenbakia, 2010eko martxoaren 11koa).

Konstituzioaren 149.1.1. artikuluan ezarritakoaren babespean idatzi da ministerioko agindu hori. Konstituzioaren aipatu artikulua estatuari esleitu dio konstituzioko eskubideen erabileran eta betebeharrak betetzean espainiar guztien berdintasuna bermatuko duten oinarritzko baldintzak erregulatzeko



eskumen eskusiboa (lehen azken xedapena), eta, hortaz, guztiz aplikatu dakioko Euskal Autonomia Erkidegoari.

Aginduaren 5.1. artikulua hurrengo terminoetan zehaztu ditu oinezkoen ibilbideetako baldintza orokorrak:

‘Son itinerarios peatonales accesibles aquellos que garantizan el uso no discriminatorio y la circulación de forma autónoma y continua de todas las personas. Siempre que exista más de un itinerario posible entre dos puntos, y en la eventualidad de que todos no puedan ser accesibles, se habilitarán las medidas necesarias para que el recorrido del itinerario peatonal accesible no resulte en ningún caso discriminatorio, ni por su longitud, ni por transcurrir fuera de las áreas de mayor afluencia de personas.’

Bestalde, aginduaren 5.2. artikulua, besteren artean, oinezkoen ibilbide irisgarriek honako betekizunak bete behar dituztela ezarri du:

‘a) Discurrirá siempre de manera colindante o adyacente a la línea de fachada o elemento horizontal que materialice físicamente el límite edificado a nivel del suelo.’”

Hala, oinezkoentzako ibilbide irisgarria **“betiere”** fatxadaren edo zoruaren mailan muga eraikia fisikoki gauzatzen duen elementu horizontalaren ondotik joango da.

Ildo horri eutsiz, duela gutxi, 2019ko otsailaren 11n, Auzitegi Gorenak epaia eman zuen (1152/2016 Errekurtsoa, kasazio prozedura), aipatu ministerioaren agindua aplikatuz eta ildo horretatik doa. Hala, udal-ordenantzaren bi artikulua indargabetu ditu, fatxadari itsatsitako mahai eta aulkiak instalatzeari buruz, bai terrazak espaloietan jartzen direnean, bai altzariak, fatxadei lerrotatuak, oinezkoentzako kaleetan baimentzen direnean. Epaiak laugarren oinarrian honakoa argudiatzen du:

“Pues bien, parece olvidarse por el Ayuntamiento recurrido que el requisito contemplado en la letra a) tiene por finalidad que un invidente pueda en su deambular orientarse con la línea de fachada o elemento horizontal que materialice físicamente el límite edificado a nivel del suelo. Al efecto, haciendo un inciso, parece oportuno constatar una realidad fácilmente comprobable en nuestras ciudades, cual es la de cómo los invidentes pretenden orientarse con su bastón, por razones evidentes de seguridad, siguiendo la línea de fachada de las edificaciones o el elemento horizontal de mención.

Y es que siendo ello así, ninguna duda debe ofrecer que la ocupación del espacio inmediato a esa línea de fachada o de la correspondiente a ese elemento horizontal, supone un obstáculo para quien siendo invidente no puede tomar como referencia la línea de fachada o elemento horizontal y, en

definitiva, una limitación de su derecho de movilidad por los espacios públicos cuales son las aceras.

Esa limitación u obstáculo es lo que se origina con la ordenanza impugnada cuando en su artículo 63 permite autorizar la instalación en aceras de terrazas pegadas a la alineación de fachadas (artículo 63.b.i)), cuando para calles peatonales o de acceso restringido se contempla la instalación de terrazas adosadas a fachadas o pegadas a la alienación de ellas (artículo 63.b.i).), o cuando en el artículo 65 se contemplan diversos modelos de terrazas en posición interior, en aceras o en calles peatonales, parques, plazas o bulevares (artículo 65.1.1.a) y 2).”

Udal ordenantzak II. kapituluan hiriko Alde Zaharrea terrazak instalatzeko baldintza bereziak arautzen ditu. 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, mahai altuekin okupazioak baimen daitezke eta lokaleko fatxadari itsatsiko zaizkio. Atarira gutxienezko distantzia 0,6 m-koa izango da. Bestalde, oinezkoentzako kaleei buruzko 10. artikulua fatxadari itsatsitako aulkiak eta mahaiak baimentzen ditu adierazitako baldintzetan. Azkenik, ordenantzaren 10. artikuluko 3. atalak ezarritakoarekin bat, ezingo da inolako mahairik (osagarriak, altuak, baxuak) eta altzari osagarririk jarri ateripe edo karrerapeen barruan, ezta zutabeen artean ere Konstituzio plazan eta Boulevard plazan. Nolanahi ere, oinezkoek joan-etorriak egiteko erabat libreak utziko dira.

Laburbilduz, Arartekoaren iritziz, udalak ordenantzaren edukia ikuskatu behar du, estatuan eta autonomia erkidegoan dagoen irisgarritasunaren sektoreari buruzko araudiaren berezko legezketasunari egokitzeko. Bereziki, kontuan hartuko dira mugikortasun unibertsala mugatzen duten oztopoekin fatxadaren lerroa edo elementu horizontala okupatzea uzten duten egoerak, arestian aipatu diren baldintzetan. Aurrekoari eutsiz, zona guztian eraikinen fatxadei lerrokatuta kokatzeko emandako baimenak berraztertu behar ditu eta fatxadaren ala zoruan eraikitako muga fisiko gauzatzeko bestelako elementu horizontalaren ondoan nahiz inguruan oinezkoentzako ibilbide irisgarriak errespetatzen ez dituzten instalazioak ondorerik gabe utzi ere bai.

4.4. Ordenantzarekin bat ez datozen baimenak.

Aztertutako espedienteetatik, “F” espedienteak islatzen du egoera hori. Nahasitako bizilagunek izapidetu dituzten salaketan arabera, baimenak ordenantzari buruzko 12.2 b) artikulua ez zuen betetzen. Dionari jarraiki, orokorrean, okupazioek larrialdiko ibilgailuak pasatzeko gutxienez 3 metro libre utzi beharko dituzte eta salbuesenez 2,5 metro.

Espediente honen kasuan, ordea, terraza instalatzea baimendu zenean kalean 2,3 metroko espazio librea zegoen, kalearen gainerako ezaugarri bereziak kontuan hartu gabe: beheko solairuan etxebizitza, kalearen estutasuna, etab. Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuaren



zuzendariak 2017ko abuztuaren 21ean txostena egin zuen eta bertan azaldutakoarekin bat, terrazak kokapenarengatik suhiltzaileen esku-hartzea ez du zailtzen, pasatzeko kalea ez denez eta instalazioa kalearen erdian kokatua dagoenez, beraz, erraz ken daiteke. Nolanahi ere, txostenak ondorioztatutakoaren arabera, hobe da Alde Zaharreko kale guztietan, ahal bada, araudian ageri den zabalera librea mantentzea.

Ordenantzaren 10. artikulua haxe dio:

"1. Oinezkoen kaleak:

a) 5 m-tik gorako zabalera duten kaleetan, mahai altuak ezarri ahal izango dira, eta mahai bakoitzeko bina aulki, kalearen alde bietan eta lokalaren fatxadaren aurrealdeak hartzen duen luzera guztian.

b) Merkataritza edo ostalaritza establezimenduak kalearen alde bakarrean dituzten kaleetan, saltokirik ez dagoen aldean mahai baxuak ezartzeko baimena eman ahal izango da.

c) Parte Zaharreko gainerako kaleetan, ostalari tzako establezimenduek 2 mahai altu ezarri ahal izango dituzte; mahai altu horiek fatxadan bertan ezarri behar dira, aulkirik gabe, establezimenduaren sarreretan."

Gure ustez, modu horretan idatzitako artikulua b) atalean zehaztasunik eza du, mahai baxuak eta dagozkion aulkiak baimentzeko kalearen gutxieneko zabalera ez baita definitzen. Nolanahi ere, ordenantza sistematikoki aztertuz gero, b) aukera bakarrik bost metrotik gorako zabalera duten kaleetan baimen daiteke, merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak alde bakarrean kokatuak egoteaz gain. 5 metrotik beherako gainerako kaleetan 10. artikuluko c) atala izango da aplikagarria eta Alde Zaharraren zona honetan ordenantzaren 12.2.b) artikulua, hiriaren gainerako tokietan baldintza bereziei buruzko III. kapituluaren sartutakoa, aplikatzeak zalantzak sortzen ditu.

lido horri jarraiki, behin eta berriz kexak zeudelako, ixteko eta terraza kentzeko ordutegia betetzen ez zuelako, hurrengo atalean aztertuko dugun bezala lizentzia ezetsi zen, baina bidearen ezaugarriei erreparatuz, ez zitzaion inoiz eman behar izan, halako moduluak baimentzeko baldintzak ez baitziren betetzen.

4.5. Zehapen espedienteak izapidetzea eta horien edukia zehaztea.

Gai hau aztertzeko orduan, 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen zehapen ahalmenari buruzkoa, kontuan hartu behar da eta arreta berezia ipiniko zaio zehapen ahalmena erabiltzeko benetako arau orokorren inguruko II. kapitulari.





Bestalde, arau-haustek eta zehapenak arautzeko, ordenantzan hurrengo artikulua azpimarratu behar dira:

50. artikulua. Mailaketa irizpideak.

Zigorren zenbatekoa ezar tzeko, baimenak deuseztatzeko, baliogabe tzeko eta iraungi tzeko honako hauek hartuko dira kontuan: Nahita egin ote diren, arau-haustek zenbat denboraz iraun duen, unean unekoa den, noizean behingoa edo errepikatu egin ote den, ez bete tzea gertatu zenean zegoen edukiera, egun berezietan gertatu ote zen, tokiko festetan adibidez, eta eragindako kalteen ezaugarriak.

51. artikulua. Zigorrak.

.../...

2. Sailkatutako arau-haustek honela zigortuko dira:

a) Arau-hauste arin bakoitza gatik, ohartarazpen hutsa edo 50 eta 200 € bitarteko isuna.

b) Arau-hauste larri bakoitza gatik, baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigila tze arekin batera, hilabetera arte, eta egoki denean, 201 € eta 400 € bitarteko isuna.

c) Arau-hauste oso larri bakoitza gatik, baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigilatzearekin batera, hiru hilabetera arte, eta egoki denean, 401 € eta 1.000 € bitarteko isuna.

3. Zigortutako arau-haustek behin eta berriz egiteak isunaren mailaketa hau ekarriko du, eta, gainera, baimena deusezta tzea erabakiko da, eta bide publikotik instalazioa kenaraztea, edo instalazioa zigila tzea, honakoaldi hauengatik:

a) Urtean bi arau-hauste arin edo gehiago egiten badira, bigarrena 200 euroan mailakatuko da. Hurrengoa, ordea, larritzat joko da eta baimena deuseztatu eta indargabetuko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioen zigila tze arekin batera, hilabetera arte, eta egoki denean, 201 € eta 400 € bitarteko isuna.

b) Urtean bi arau-hauste larri edo gehiago egiten badira, bigarrena eta 400 euroan mailakatuko da. Hurrengoa oso larritzat joko da eta baimena deusezta tzea eta indargabe tzea erabakiko da, instalazioa kenaraztearekin edo instalazioak zigilatzearekin batera, hiru hilabetera arte edo behin betiko, baimena deuseztatuta, eta egoki denean, 401 € eta 1.000 € bitarteko isuna.



c) Urtean bi arau-hauste oso larri edo gehiago egiten badira, bigarrena eta hurrengo isunak 1.000 euroan mailakatuko dira, eta baimena deusezta tzea erabakiko da, eta berehalakoan instalazioa kenaraztea, edo instalazioak berehalakoan zigilatzea, bost hilabetera arte edo behin betiko, baimena deuseztatuta.”

Ondoren, sei espedienteetatik alderdirik nabarmenenak izango ditugu aztergai, jardueraren metodoari eta sistematikari erreparatuz, edozein kasutan irismena mugatua dela kontuan hartuta. Dena den, egingo diren oharretan nahikoa egiaztatzeke aukera izan da.

“A” espedientea

Establezimendu honi ordenantzaren 48.3.a) artikulua **bi arau-hauste arin** jarri zitzaizkion (zamalanetarako ordutegian terraza instalatzea). **2016. urtean** zehapena 200 eurokoa izan zen, 2016ko uztailaren 21ean eta abuztuaren 5ean Udaltzaingoaren bi kontrol-txostenen ondorioz. Itxuraz, 2016ko abenduaren 15eko zinegotzi ordezkariak emandako zehapen-espediente bakarrean izapidetu ziren (arau-hausleak 2017ko urtarrilaren 17an jaso zuen).

Udaltzaingoak beste kontrol bat egin zuen **2017ko apirilaren 26an** eta emaitza negatiboa izan zen, baimendutako 8 mahaietatik hiru aulkirekin bakoitza 3 jarriak dituelakoan. Txostenak egiaztatutakoaren arabera, hala dio: *“Es de señalar que hay un andamio en la fachada que le impide colocar la terraza correctamente. Están colocadas así para no bloquear el paso.”* Ez da zehazki ezagutzen nola zeuden kokatuak mahaiak eta aulkiak eta oinezkoen pasabideari kentzen zioten tokia. Nahiz eta horretarako arrazoirik egon, itxuraz, baimenaren titularrari ez dagokio instalazioan aldaketak erabakitzea. Edozein aldaketa udalak erabaki beharko luke, zenbait terraza lerrotatuak dituen kalea dela kontuan hartuta.

2017ko ekainaren 1eko kontrol-aktari jarraiki, 8 aulki gehiago instalatzeagatik (mahai bakoitzean 3 aulki) establezimenduari zehapen-espedientea ireki zitzaion eta 100 euroko isunarekin zehatu ere bai, ordenantzaren 48.3 h) artikulua urratzeagatik. Hala dio:

“Larritzat edo oso larritzat hartzen ez diren Ordenantzaren beste ez-betetze guztiak, instalatu beharreko elementuen baldintza orokorrei, espezifikoiei eta ezaugarriei dagokienez, asmo txarrik gabe edo ez-betetzea errepikatu gabe.”

Espedientean ez dago argudiorik arau-haustea h) artikuluari dagokiola eta esplizituagoak izan arren, ez beste atal batzuei dagokiela aipatzeko, hala nola:

“b) Eremu handiagoa okupa tzea, planoan baimendutakoak baino modulu gehiago jar tze aren ondorioz.

c) Moduluak planoan baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.”

Xede horrez, zehapen-ahalmenari buruzko legeak honako araua du: arau-haustea ahalik eta xehetasun handienarekin tipifikatu behar direla eta kasu zehatz bakoitzean arau-haustea zehazteko, eskusiboki arau-haustea moten deskribapenean sartutako elementuei erreparatuko zaiela (legearen 4. eta 13. artikulua).

Azaldutako baldintzetan, arau-haustearen arrazoiak zen baimendutakoa baino espazio gehiago eta kokagunetik kanpo hartzea, beraz, baimen-planoaren arabera, oinezkoentzako espazio librea okupatzen zuen. Ezezaguna da egoera horren ondorioz irisgarritasuna eta oinezkoentzako pasabidea arriskuan al zeuden eta bere kalifikazioa zein zen (kale-mota, oinezkoen kopurua, terrazak metatzea, segurtasuna, etab.). Alderdi hori oso garrantzitsua da, ordenantzak 48.4. artikuluan hurrengo arau-haustea larrizat jotzen baititu:

“b) Baimendutakoak baino modulu gehiago jar tzean behar baino eremu handiagoa okupa tzea eta horren ondorioz arazoak sortzea, udal zerbitzuen segurtasun eta irisgarritasunerako.”

Arau-hauste motaren zehaztapenik ezaz gain, zehapen-espeditentean instruktorearen ebazpen-proposamenak ez du kasu honetan erruaren maila definitzean, mailaketa-irizpideak aplikatzean gorabeheren haztapena arrazoitzen. Halaber, ez da ageri maila ertainean isunaren zehapena jartzea proposatzearen arrazoiak (zehapen-ahalmenari buruzko legearen 14.3. artikulua). Laburbilduz, ez da ezer espeditentean azaltzen, beraz, jada adierazitakotik kanpo, egindako arau-haustearen ondorioz, zehapena eta isunaren zenbatekoa egokia al den definitzea ezinezkoa da.

Azkenik, idatziz jasoa utzi nahi da 2017ko irailaren 26ko zehapen-espeditentea hasten duen ebazpenean (hurrengo urriko 2ko irteera-erregistroa), 3. atalak hurrengo aipatzen duela: *“Baimenaren titularrari agintzea okupazioa baimena ematean zehaztutako baldintzetan jartzeko, jakinarapena jaso ondorengo 24 ordutan.”* Agindua betetzeari buruz eta eraginkortasunez betetzeko gauzatutako jarduerari dagokienez ez da ezer aipatzen.

2017ko urriaren 11n, ordea, bigarren kontrol-akta egin zen *“terrazaren baimena”* ez betetzeagatik. Nolanahi ere, baimendutakoak baino aulki gehiago (3 gehiago) jarriak zituen. Dena den, erantsitako argazkian, aulki gehiago ipintzetik aparte, terrazaren lerrokadura guztiak oinezkoentzako espazioa hartzen du, aurreko espeditentean gertatzen zen bezala. Hala, legeko 3 metroko espazio librea ez da errespetatzen.

Puntu honetan azpimarratu behar da elkarte kexagileak udalari 2017ko uztailaren 26an idatzia bidali ziola, establezimendu horren gehiegizko okupazioaren egoera salatzeko. Kalearen erdia baino gehiago hartzen zuen





eta agerian gelditzen da, zonako gainerako terrazen lerroa ez baita jarraitzen. Gainera, apirilaren 19ko aurreko idazkian jada salatzen zen establezimenduak kalean baimendutakoak baino aulki eta mahai gehiago metatuak zituela.

Hau da, arau-haustea errepikatzen zen eta elkarteak salatua zuen. Hala ere, beste kontrol-akta bat egin arte ia hiru hilabete igaro ziren. Emaitza 48.3.h) artikulua urratzeagatik zehapen espediente berria, aurrekoaren berdina, izapidetzea izan zen eta oraingoan 100 euroko isuna jarri zitzaion. Hots, berriz lehen transkribatutako h) atala aplikatu zen, nahiz eta errepikatu; are gehiago, ustez, baimenaren baldintzak ez betetzen jarraitzeko asmoa dago.

2017ko ekainaren 1eko kontrol-aktaren ondorioz izapidetutako zehapen-espedienterako adierazitako guztiaz gain, bigarren espediente honetan ordenantzaren 51.3 a) artikulua aurreikuspena ez da aplikatu. Horren arabera, bigarren arau-hauste arinarengatik isunek gehieneko zenbatekoa izango dute. Hala, 200 eurokoa izan beharko luke, jarri zitzaizkion 100 euroren ordeaz.

Amaitzeko, ordenantza hobe betetzeari begira eta **ez-betetze errepikatu edo berriengatik** aurkeztutako kexei erantzuteko, **2017ko azaroaren 21ean** bide publikoen teknikari laguntzaileak sinatzen duen eskaeran bidezkoztat jotzen da Udaltzaingoak ikuskapena egitea, balizko arau-haustea egiazta ditzan. Berriz sartu da establezimendu hori oinezkoentzako zabalera librea ez errespetatu eta baimendutakoak baino mahai gehiago jartzeagatik. Horrek ideia ematen du arau-haustea errepikatu eta iraunarazteari buruz, terrazak errespetatu behar duen oinezkoentzako pasabide librean eragiteaz gain.

“B” espedienteak

2016ko irailaren 28ko kontrol-aktaren arabera, 3 moduluko 2 mahai gehiago instalatzeagatik establezimendu horri zehapen-espedienteak hasi zitzaion eta 100 euroko isuna jartzea proposatu zen, ordenantzaren 48.3 b) artikulua urratzeagatik. Egoera hori jada salatu zuen elkarte kexagileak 2016ko abuztuaren 1ean, hau da, bide publikoa okupatzeari buruzko kontrol-txostena egin eta, ondorioz, zehapen-espedienteak hasi baino ia bi hilabete lehenago (abuztu eta iraila tarteko).

2017ko urrilaren 11ko kontrol-aktaren arabera, establezimendu honi baimendutakoa baino espazio gehiago hartzeagatik berriz zigortu zitzaion. Izan ere, entregatutako planoan instalatutakoak baino modulu gehiago jarri zituen eta ordenantzaren 48.3.b artikulua urratu zuen, beraz, 100 euroko isuna jarri zitzaion. Bigarren zehapena ekitaldi desberdinekoa izan arren, oraingoan ere ez da haztatzen errepikatzailea izatea eta arau-haustea egitearen asmoa, nahiz eta aurretik arrazoi berdinarengatik zehatu.

Orokorrean, aurreko espedienteak azaldutakoa errepikatu behar da. Nolanahi ere, harrigarria da salaketa, udal zerbitzuen kontrol eta zehazpen-





espedienteari eta, bidezkoa bada, baimendu gabeko instalazioa erretiratzeari dagokion ebazpenaren artean igarotako denbora.

"C" espedientea

2017ko martxoaren 24ko kontrol-aktari jarraiki, espedientea izapidetu ondoren, 100 euroko isunarekin zigortu zitzaion establezimendu honi arau-hauste arinarengatik (ordenantzaren 48.3 b) artikulua), entregatutako planoan islatutakoekiko modulu kopuru handiagoa jarrita, baimenduta zuen espazioa baino gehiago okupatzearen ondorioz.

Bestalde, elkarte kexagileak 2017ko apirilaren 15ean udalari jakinarazitakoaren arabera, establezimendu hori baimendutakoak baino mahai kopuru handiagoa instalatzeko espazio gehiago okupatzen ari zen.

2017ko urriaren 11ko aktak berriz salatu zuen establezimendua arau-hauste arin bera (ordenantzaren 48.3.b) artikulua) zela medio eta beste 100 euroko isuna ipini zitzaion. Hemen berariaz errepikatu behar da "A" espedientearen kasuan adierazitakoa. Bigarren isuna gehieneko mailan, hau da, 200 euro jarri beharko litzateke, ordenantzaren 51.3.a) artikuluan xedatutakoarekin bat.

Azkenik, 2017ko azaroaren 2an hirugarren moduluko bigarren mahaia instalatzeko baimena lortu zuen, lehen ezetsi arren. Laburbilduz, sei hilabete luzetan establezimendu honek baimendu gabeko eta berariaz uko egindako moduluak jarri zituen, baina, gero, udalak baimendu zuen eta aldaketaren arrazoia egiaztatu gabe irizpidez aldatu zuen.

"D" espedientea

Establezimendu honen kontrol-akta negatiboa 2017ko martxoaren 24koa da, terraza behar bezala instalatuta zegoelakoan. 13 mahai zituen fatxadari itsatsiak, aulkirik gabe. Elkarte kexagilea, ordea, kexu zen, mahaien kokapena zuzena ez zelako. Alde batetik fatxadan itsatsiak zeuden, beraz, baimendutakoa baino espazio gehiago hartzen zuten.

"E) espedientea

Establezimendu honen kontrol-akta negatiboa 2017ko maiatzaren 27koa da. Horretan idatzitakoaren arabera, udal-araudia betetzen zen. Terraza instalatzeko azkeneko baimena 2017ko ekainaren 7an eman zitzaion, udalean 4 moduluko 2 mahai instalatzeko eskaera maiatzaren 23an egin ostean. Modulu bereko beste mahai batera zabaltzeko baimena eman zitzaion 2017ko urriaren 26an. Elkarteak 2017ko apirilaren 16an kexa azaldu zuen, 3 mahai instalatuak izanda, baimenik ez zegoelako. Ziurrenik, berriz ere establezimendu honek baimendutakoa baino espazio gehiago hartu zuen, azkenean, eskatutako hirugarren mahaia lortu arte.



"F" espedientea

Establezimendu honen egoera jada aztertu da 4.4. atalean, ordenantzarekin bat ez datozen baimenak landu direnean.

Establezimendu honek 2017ko maiatzaren 10ean 1 moduluko (mahaia eta lau aulki modulu bakoitzak 2x1,5 metro hartuz) 7 mahai eskatu zituen eta 2017ko maiatzaren 22an bakarrik 1 moduluko 6 mahai instalatzea baimendu zioten, lehen bakarrik bi mahai alturako baimena zuenean eta, gainera, aulkirik gabe.

Aurkeztutako dokumentazioan establezimendu honek lehenengo salaketa 2017ko uztailaren 11n du. Horren arabera, baimendutako terrazak ez zuen ordenantzaren 12.2.b) artikulua betetzen, hau da, araudiak eskatutakoarekin bat, larrialdietarako 3 metroko gutxieneko eta salbuespenez 2,5 metroko pasabiderik ez zegoen. 3,80 metroko kalea denez, terraza instalatutakoan espazio librea 2,30 metroko zabalera murrizten zen. Terraza establezimenduaren kontrako fatxadan ipinia zegoen, elkarte eta behe solairuko etxebizitzaren leihoen aurka. Gainera, salaketarekin bat, fatxadan dagoen olanak eta instalatutako terrazak kale guztia hartzen dute eta oso estua denez, teilatuen arteko argia ia 2 metrokoa da, beraz, zaratak patio itxian bezala burrunba egiten du.

Salaketa bera aurkeztu zuten beste bizilagun batzuek 2017ko abuztuaren 14ko eta 29ko idazkien bitartez.

Espediente bat hasi zen eta Suteen Prebentzio eta Itzalketako eta Salbamenduko Zerbitzuko zuzendariaren lehengo txostena dago. 2017ko abuztuaren 21ekoa da eta hala dio:

"...Angel kalea ez da pasatzeko kale bat. Suhiltzeileek kale honetatik joan behar badute interbentzioa kalean bertan izateagatik izango da.

Terraza kaleko erdian dago eta oso erraz eta azkar ken daiteke. Horregatik terraza honen kokapenak ez du eragozpen handirik Suhiltzaileen interbentzioak egiteko.

Nahiz eta eragozpen handiak ez izan hobe da Alde Zaharreko ahal den kale guztietan araudietan finkatuta dagoen zabalera mantentzea."

Bestalde, Espazio Publikoen Baimenei buruzko Atalaren 2017ko irailaren 14ko txosten teknikoak lizentzia baliogabetzea proposatzen du, honakoak kontuan hartuta: kexa etengabeak, ixte-ordutegia eta terraza kentzeko ordutegia behin eta berriz ez betetzea eta bidearen ezaugarriak. Nolanahi ere, eskatu ondoren, txostenak azaldutakoaren arabera, bi mahai altu ipintzea baimen daiteke, baina aulkirik gabe, bidearen ezaugarrietara hobe egokitzen baita.

2017ko urriaren 4an baimena baliogabetzea eta iraungitzat jotzea erabaki zen. Interesdunari entzunaldiaren 10 egun eman zitzaizkion eta ez zuen alegaziorik aurkeztu. Interesdunak 2017ko azaroaren 2an proposamen teknikoari jarraiki, aulkirik gabe bi mahai alturako lizentzia berria eskatu zuen eta 2017ko azaroaren 23an jaso zuen baimena. Urte horretako azaroaren 13ko testigantza dago eta kale guztia baliogabetutako moduluek okupatzen dute.

Etengabeko kexei eta ixteko nahiz terraza kentzeko ordutegiak behin eta berriz ez betetzeari buruz (guztiak ordenantzaren ez-betetzeak) 2017ko irailaren 14ko txosten teknikoak aipatutakoa ezagutu arren, ez zitzaion zehapen-espeditente bereizirik hasi. Dena den, egia da, azkenean, adierazitako moduan, baimena ondorerik gabe utzi zela, ordenantzaren 41.17. artikulua aplikatu ondoren:

“Interes publikoagatik baimenaren ezeztatzea edozein unetan onar tzea, kalte-ordaina jaso tzeko eskubidea izan gabe, egoera hauetan: Gerora onartutako baldin tza orokorrekin bateraezina izatea, jabego eta erabilera publikoko ondarean kalteak egitea, interes publikoko jarduerak eragozte edo erabilera orokorrari kalte egitea.”

Azken finean, baimena ez zitzaion baldintzak ez betetzearen ondorioz zehapena aplikatzeagatik baliogabetu. Baimena bateraezina zela eta erabilera orokorra gutxiesten zuela ulertu zen. Horri eutsiz, ordenantzarekin bat ez datozen instalazioei buruz 4.4. atalean azaldutakora jo dezakegu.

Establezimendu honekin zerikusia duten jardueren ildotik, beste atal batzuetan jada adierazitakoa errepikatu behar dugu. Nahiz eta 2017ko uztailaren 11tik udala behin eta berriz terrazaren beraren instalazioaren eta baimendutako baldintzen ez-betetze larrien inguruan salaketak jasotzen egon, oraindik 2017ko azaroaren 13an kalea terraza-moduluz okupatuta zegoen. Ordurako baimena baliogabetzea proposatuta zegoen eta 2017ko urriaren 18an jakinarazi zitzaion. Horrez gain, ebazpen-proposamena establezimenduak onartu zuela ulertu behar da, 2017ko azaroaren 2an jardueraren titularrak aulkirik gabe bi mahai altu jartzeko lizentzia ematea eta emandako lizentziagatik (*“en un primer momento y que se va a proceder a revocar por parte del Ayuntamiento”*) ordaindutako zati proportzionala itzultzea eskatu baitzuten.

Azkenik, 5,20 metrotik beherako zabalerako kalea denez, 22:30era arte terraza ez kentzeagatik ikuskapen bat dago eta 2017ko urriaren 28ko kontrol-aktan ageri da. Aktak jarduera-ordua 00:10ean kokatzen du. Zehapen-prozedura hasteko ebazpenak, berriz, hala dio: salatutako gertakariak 48.3 a) artikulua urratzearekin bat datozela, hau da, zehaztutako ordutegiarekiko ordubete baino gutxiago atzeratzea. Aktan adierazten diren datuak ikusirik, 1:40 ordu atzeratu zen terraza kentzeko orduan.



Ordutegiari buruz nahastea sortzen da. Ikuskapen-partearen arabera, terrazak kendua egun beharko luke 22:30erako, ordenantzaren 7.3. artikuluan xedatutakoari jarraiki. Baimen-dokumentuak, ordea, ixte-ordutegia 23:00etan finkatzen du eta kontraesanen legoko indarreko ordenantzarekin. Nolanahi ere, atzerapena ordubetetik gorakoa da. Espedientea hasteko ebazpenak eta arau-hauste arinagatik zehapena (50 euroko isuna) jartzeko ebazpenak ez-betetzearen denbora zehatza ez dute adierazten, nahiz eta oso garrantzitsua den arau-haustearen larritasuna kalifikatzeko.

Ilido horri eutsiz, 48.4 c) artikulua arau-hauste larritzat jotzen du ordubeteen edo hortik gora hasierako edo amaierako ordutegia ez betetzea. Beraz, arau-haustek larria izan beharko luke eta ez arina. Ordenantzaren 51.2 b) artikulua arau-hauste larri bakoitzeko baimena etetea eta baliogabetzea aurrez ikusten du, gehienez hilabete batez instalazioa kendu edo hori zigilatzearekin batera eta, bidezkoa bada, 201 eurotik 400 eurora bitarteko isuna jartzea.

Gainera, kontrol-akta aztertzen jarraitzen badugu, beste elementu batzuen artean metalezko hiru upel txiki daude baimenik gabe eta argazkian beste elementuren bat ikus daiteke, hala nola, loreontzia. Hala, kaleko espazio librea oraindik gehiago murrizten da, zehapen espedientea izapidetu behar dela kontuan hartu gabe.

Labur esanda, espediente honen babesean, kalearen ezaugarriei erreparatuz, terraza bidegabe baimendu zen eta salaketa ugari izan zituen, baina ez ziren behar bezala izapidetu eta, azkenean, uda osoa igarotakoan, baimena baliogabetzea erabaki zen. Ordenantzaren ez-betetzeak egiaztatu arren, zehapen-espediente bakarra izapidetu da eta oker kalifikatuta dago.

5. Ondoren, planteatu diren beste gai batzuk zehaztuko dira eta udalak horiei buruz informazioa helarazi du.

5.1. Alde Zaharrean izapidetutako zehapen-espedienteak eta elkartearen kexak nahiz iradokizunak jarraitzea.

Eskuratutako informazioaren arabera, Alde Zaharrean 2016. urtean 13 zehapen-espediente izapidetu dira eta arau-hauste oso larriengatik bost zehapen jarri dira 401 euroko isunarekin. Gainerako arau-haustek arintzat jo dira eta 100 eurora bitarteko isunak ipini dira.

2017. urtean 18 zehapen-espediente izapidetu dira. Hiru ustezkotan arau-hauste oso larriak egiteagatik zehapenak aplikatu dira eta isunaz gain, kasuren batean baimena hilabete batez etetearekin zigortu da. Kasu batean, ordea, arau-haustea larria izan da eta gainerakoetan arau-haustek arinak dira.





2018. ekitaldiari buruz udalak helarazitako informazioa ez da sartu, udal erantzuna jasotakoan urtea osoa ez baitzen.

Udalak, bere erantzunean, beste jarduera batzuei buruzko txostenak erantsi ditu. Izan ere, horiek elkartearen kexa eta iradokizunei erreparatzeko egin dira. Aurrekoaren harira, elkarteko ordezkariarekin bilera egin zen salatutako ez-betetzeen ustezkoen inguruko zerrenda egiteko. Helburua Udaltzaingoaren unitateari bidaltzea zen, bidezkoa izanez gero, neurri egokiak har zitzaizkien.

Hala, irailaren 12an Mantentze Lan eta Hiri Zerbitzuen Administrazio Atalak Udaltzaingoari ordenantza betetzearen inguruko kontrol-ikuskapena egitea eskatu zion eta, besteak beste, A, B, C eta E establezimenduen ustezko arau-haustekak, aurreko atalean aztertutakoak, sartuak daude. Bestalde, ildo beretik egin zen eskaera 2017ko azaroaren 21ean eta ez-betetzeengatik ikuskapenean berriz sartzen dira A eta B establezimenduak.

Ikuskapen honetarako, elkarteari bidalitako informazio-idazki batean hurrengo aipatzen da: *“En estos momentos estamos a la espera de recibir los informes de la Guardia Municipal que debe atender a la petición en función de las tareas y prioridades de servicio que tenga de lo cual ya ha sido informado el representante de dicha asociación, sin perjuicio de que alguno de dichos bares haya sido sancionado ya.”*

Arrazoizkoa da ikuskapen-eskaerak zerbitzuaren zereginen eta lehentasunen arabera eskatzea, baina hemen adierazitakoaren babesean, aurreko atalean egin den azterketa zehatzaz gain, itxuraz, ikuskapen-lanak eta salaketa-akten izapideak aurkeztutako kexei eta espazio publikoaren okupazioa baimentzez arduratzen den sailaren eskaerari jarraiki egiten dira, ostalaritza-establezimenduei terrazak baimentzeko baldintzetatik abiatuta, horiek eraginkortasunez betetzen direla ziurtatzeko udalaren jarraipen- eta kontrol-planik izan gabe.

Gainera, aztertutakoa kontuan hartuta, bidezkoa bada, zehapen-espedientea hasi arte denboran geroratzen diren ikuskapenak, itxuraz, ez dira eraginkorrak arauak hausten dituzten establezimenduei baimen-baldintzak betearazteko. Beraz, elkarte kexagilearekin bat etorri behar dugu ordenantza urratzeak pena merezi diela, kasu gehienetan 80 euroren truke (% 20ko murrizketa arin ordaintzeagatik) denbora luzez espazioa baitu. Are gehiago, kasu batzuetan ez luke inoiz baimenik lortuko. Horri erantsi behar zaio udalak gehiegiz okupatzeko tasa likidatuko al dion, ordenantzaren 42.7. artikulua aplikatuz.

Azkenik, aurreko gogoeten ildotik, zehapen-espedienteak izapidetu eta behar bezala kalifikatzeari buruz adierazitakoaz gain, ordenantzak 47. artikuluan kautelazko neurriak hartzea arautzen du; besteak beste, terrazatik aulkiak eta mahaiak kendu beharko lirateke eta baimena aldi baterako eten ere bai, zehapen-espedientea hasten al den erabaki arte. Udalak arauketa hori



kontuan hartu behar du baimenaren baldintzak ez-betetzea antzematen denetik eraginkortasunez errespetatzeko. Hori unean bertan erraz egiazta daiteke, establezimendu guztiek planoa eta baimena ikusgai izen behar baitute.

5.2. Suteen esku-hartzeei buruzko zerbitzuen zonak aztergai hartuta, segurtasun eta irisgarritasunari buruzko beste txosten batzuk eta irisgarritasunaren inguruko bestelako gaiak.

Ezbeharren kasuan Alde Zaharrera sarbideei buruzko txosten orokorra eta kalearen arabera erabili behar diren ibilbideak eransteaz gain, eskatutako beste txosten berezi batzuk gehitu dira.

Ildo horri jarraiki, Esterlines kaleko barne plazari dagokionez, hiru terraza baimenduak daude eta eskusiboki suhiltzaileen esku-hartzeetarako plaza hori ez da inola ere pasabidea. Txostenarekin bat, terraza kalearen erdian kokatua dagoenez eta segundo gutxi batzuetan kentzea ahal denez, ez du suhiltzaileen esku-hartzerik zailtzen. Amaitzeko, *“Nahiz eta eragozpen handiak ez izan hobe da Alde Zaharreko ahal den kale guztietan araudietan finkatuta dagoen zabalera mantentzea.”* Txosten honek “E” espedientearen antzeko adierazpenak ditu. Edozelan ere, orokorrean, hiru metroko pasabide librea mantendu behar da, beraz, mugaren ustezkoak behar bezala egiaztatu beharko lirateke espedientearen eta hori kale oso estuak okupatzeak eta “patio” ondoreak dakarren arazoarekin lotu beharko litzateke, giroko zarata areagotzen baita.

Konstituzio plazari eta jende asko bilduko den egunetarako aurreikuspenei dagokienez, altzariak eta bestelako tresnak kentzeko jardueren informazioa, ordutegiak eta programatutako ekitaldi guztietarako bestelako aurreikuspenak azaldu dira. Hala ere, erakunde honek ezin du alderatu elkarteak alegatzen zituen ez-betetzeak.

Azkenik, adierazi behar da udalak ez duela berariazko informazioa aurkeztu irisgarritasunaren araudia betetzen dela erabakitzeko irizpide orokor aplikagarriei buruz (oinezkoentzako ibilbideak bermatuta dauden, errespetatu beharreko distantzia...). Nolanahi ere, ordenantzen xedapenetara bidaltzen du. Beraz, gai honetan 4.3. atalean adierazitakoari erreparatuko diogu.

6. Elkarte kexagileak ebazpen honen lehenengo aurrekarian azaldutakoari jarraiki salaketak aurkeztean udalaren erantzun urriari dagokionez egindako kexa laburtzeko, erabilitako informazioa ikusirik eta sei espediente zehatz-mehatz aztertuta, honakoak esan daitezke:
 - Pertsonen ingurumen osasuntsua izateko eskubidea dute eta babestu behar da, beraz, premisatzat erabiltzea ezinbestekoa da izapidetzen den eskaera orori ordenantza interpretatu eta aplikatzeko orduan.



- Irisgarritasunaren sektoreko araudia betez, Alde Zaharrean ostalaritzarako jabari eta erabilera publikoko lurzoruan okupazioei buruzko ordenantzaren 9. eta 10. artikulua aldatu behar dira.
- Espazio publikoa okupatzeko baimenen eskaerak, erabilera erkide orokorraren lehentasuna kontuan hartuta, zehatz-mehatz azertu behar dira eta herritarrek espazio publikoa arin, eroso eta segurua erabiltzeko duten eskubidearekin alderatu ere bai.
- Espazio publikoa okupatzeko baimenak kontrolatzean jarduerak ez diote plangintza sistematikoari erantzuten, instalazio bakoitzaren baldintzak eraginkortasunez betetzen direla berma dadin.
- Ordenantzaren ez-betetzei buruzko ikuskapen-jarduerak, oro har, nahasitakoen salaketetatik edota elkarte kexagilearen iradokizun ala kexatik abiatuta aktibatzen dira.
- Ikuskapen- eta kontrol-zerbitzuek ordenantza ez dela betetzen antzematen duten une beretik jardun behar dute. Hala, terraza baimendutakora berehala egokitzea eskatuko dute edota kautelazko neurri eraginkorrak proposatuko dituzte, espazio publikoa errespetatzen dela bermatzeko.
- Ordenantza urratzeagatik zehapen-espedienteen izapideak behar bezala funtsatuko dira, zehapen-arloan aplikazio-printzipio orokorrekin bat. Aipamen berezia egingo zaio errepikatzeari eta arau-haustearen asmoari.
- Udalak modu egokian haztatu behar du aulkiak eta mahaiak erretiratuta kautelazko neurriak hartzea, beste bitarteko batzuk erabiliz ordenantza eraginkortasunez beteko dela ezin denean bermatu.

Horregatik guztiagatik, gomendiohau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

1. Izapide egokiak egin ondoren, ostalaritzarako jabari eta erabilera publikoko lurzoruen okupazioei buruzko ordenantza berraztertuko du irisgarritasunaren sektoreko araudiari egokitzeko.
2. Terrazak instalatzeko ostalaritza-establezimenduei emandako baimenak betetzen direla ziurta dadin ikuskapena eta kontrola hobetuko dira.
3. Ordenantza urratzeagatik zehapen-espedienteak hobe izapidetuko dira, arau-hausteak behar bezala kalifikatuko dira eta zehapenen mailaketa legez aurrez ikusitako aplikazio-irizpideekin bat egingo da.

